KALAPUTXI

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA 2010eko uztaila - 97. zenb.

jaietan presoak gogoan

Javier Basurko Anjel Bazterretxea

50 urte apaiz

Herriko gazteen lokalak

Malenak argazkitan

Joar Urkiri Igerilari

BRKN musika taldea

UDALBILTZA EUSKAL HERRIA aske!

Audi

IFAR AUTO

SEAT

SKODA AUTO

AUTO KONPONKETAK
MARKA GUZTIAK

MEKANIKA OROKORRA

- ✔ lerrokadurak
- ✔ gurpilak
- ✔ olioa
- ✔ suspentsioak

Aupa Malenak!

ELEKTRIZITATEA

- injekzioa ✔
- diagnosia ✔
- aire girotua ✔
- argiak ✔
- elektronika ✔

Tel. 943 19 12 77 · Tel. eta Faxa 943 19 19 09 · e-mail: ifarauto@terra.es

Mijoa-Ikutzaran poligono industriala, z/g ·20830 MUTRIKU · Mutriku-Ondarroa errepidea

Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 MUTRIKU

Telefonoa: 943 603468 / 635 748 393
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko Udala
Tirada: 2.200 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Kalaputxik eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

Mutrikuko Udaleko Kultura eta Euskara Batzordeak diruz lagundutakoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutakoa

aurkibidia

Informaziua 4
Zeuk esan *Irakurleen eskutitzak* 5
Puri-purixan *Udalbiltza auzia* 6-7
Bi hitzetan eta komikixa 8-9
Karenka *Basurko eta Bazterretxea, 50 urte apaiz* 10-11
Aisialdia *Zabielgo jostunak* 12
Argazkiak *Malenak argazkitan* 14-15
Gizartia *Jaietan ere presoak gogoan* 17
Gazteria *Lokalak: Gazteen bilguneak* 18-19
Kirola *Ioar Urkiri, igerilari* 20-21
Kulturia *BRNKN* 22-23
Zorion agurrak 24
Argazki zaharrak 25
Agendia *ekaina-uztaila* 26

IRITZIXA

A POR ELLOS (?)

Marea gorria, horrela deitu diote gure bizitza blaitu duen taldeari eta haren inguruan sortu den mugimenduari. Gorriarena argi dago zergatik den. Marea hitzak, ordea, gazteleraz bi zentzu dauzka, eta oraingoan biak dira baliagarri. Eta gainera, gogo onez hartu behar…

Izan ere, maila sozialean eragin positiboa dauka. Alde egon edo kontra egon, guztiok telebistaren bueltan batu –sarri asko tabernetan, trago batzuk hartu bitartean– eta lagunarteko momentuak pasarazten dizkigu, eta gainera kritikatzeko, iraintzeko, bat etortzeko, eztabaidatzeko… aukera ematen digu.

Ekonomikoki la letxe izango omen da La rojak irabaztea. Kalkulatua dute irabaziz gero, BPGa zenbatean igoko litzatekeen, eta horrek estatuko ekonomiaren hazkundea suposatzen duen heinean… ondorioak zuek atera.

Eta politikoki zer esanik ez! Cruzcamporen iragarkian argi adierazten dute: "No es sólo un equipo, es todo un país". Irrati kate batean entzun nuen esaldi baten haritik laburbilduko dut zentzu honetan pentsatzen dudan guztia. Zera esan zuten: "Es el único momento en que andaluces, catalanes, vascos y madrileños viven, cooperan y trabajan en armonía". Apustu egingo nuke Paraguayren aurka galdu izan balute, penaltia huts egin zuena euskalduna zela laster gogoraraziko zutela! Ez, orain serio: nik bizilagunekin ez daukat inolako arazorik. Harmonian bizitzea ez zait batera kostatzen; are gehiago, hala bizi nahi dut. Orain, bizilagunak nire etxean sartu eta zer egin dezakedan eta zer esan erabakitzen hasten direnean, barkatu, baina amaitu da harmonia.

Erromatarrek aspaldi asmatu zuten formula hau: herriari ogia eta zirkoa eman eta gainontzeko guztia ahaztuko dute. Futbol zalea naizen aldetik, zirkorako joera badaukat. Hala ere, ikuskizuna aukeratzen jarraitzen dudala esan behar dut. Eta ogiari dagokionean, eskainitakoa baino, nik Poteron eta Pandei Berrixan erosten dudana askoz ere nahiago!

Garbiñe Garagarza

intereseko telefonoak

OSASUNA

Anbulatorioa (Osakidetza).....943 60 43 00
DYA zentrala.....943 46 46 22
Mendaroko ospitala.....943 03 28 00
Odol emaleen taldea.....943 60 39 30
Javier Otxagabia botika.....943 19 50 26
Lon Apraiz botika.....943 60 32 50
Larrialdiak 943 46 11 11

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingua.....943 60 70 48
.....679 16 25 00
Udaletxea.....943 60 32 44
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Itsas etxea.....943 60 34 00
Ur patzuergoa.....902 30 22 22
Mankomunitatea (trasteak eta zaborrak)
.....943 70 07 99
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua..943 60 34 18

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola.....943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 36 27
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola.....943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua.....943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza 943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza.....943 60 38 71

ZERBITZUAK

Pesa.....902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua.....905 50 50 05
Hondarribiako aireportua 943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia.....943 60 41 82
Kiroldegia 943 60 31 75
Gasolindegia 943 60 32 10
Miruaitz Frontoia 688 64 31 80

Autobusak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik
Astegunak 7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak 10:00 / 16:30
Jai egunak 10:00 / 19:30

Donostiatik
Astegunak 8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
Zapatuak 11:30 / 19:30
Jai egunak 11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:

> **6:10**ean hasi eta 20:10 arte, orduro. > **6:40**ean hasi eta 19:40 arte, orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

DEBARA eta Debabarreneko herrietara

Astegunetan: **7:15**etik 21:15era orduro / **Jai egunetan**: **8:15**etik 21:15era

ONDARROARA

Astegunetan: **6:55**etik 20:55era, orduro / **Jai egunetan**: **7:55**etik 20:55era

Trenak

Tren guztiak, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

DEBA – DONOSTIA – DEBA		DEBA – BILBO – DEBA	
Debatik	6:44-7:44-...-21:44	**Debatik**	6:43 -7:43 -...-20:43
Donostiatik	5:47-6:47-...-20:47	**Bilbotik**	6:00 -7:00 -...-20:00
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira		Jai egunetan 8:43etan hasiko dira	

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik 6:43 / 7:43 / ... / 21:43 — Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Eibartik 6:13 / 7:13 / ... / 21:13 — Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako botikak (Mutriku eta Deba)

UZTAILA

16tik 18ra	Hiart Burgoaa (zapatu goizean, Lon Apraiz)
19tik 22ra	Javier Otxagabia
23tik 25era	Lon Apraiz
26tik 29ra	Hiart Burgoa
30ean eta 31n	Amaia Zalduegi (zapatu goizean, J. Otxagabia)

ABUZTUA

1ean	Hiart Burgoaa (zapatu goizean, Lon Apraiz)
2tik 5era	Lon Apraiz
6tik 8ra	Javier Otxagabia
9tik 12ra	Amaia Zalduegi
13tik 15era	Hiart Burgoa (zapatu goizean, Lon Apraiz)
16tik 19ra	Javier Otxagabia
20tik 22ra	Lon Apraiz
23tik 26ra	Hiart Burgoa
27tik 29ra	Amaia Zalduegi (zapatu goizean, J. Otxagabia)
30ean eta 31n	Lon Apraiz

IRAILA

1ean eta 2an	Lon Apraiz	13tik 16ra	J. Otxagabia
3tik 5era	Javier Otxagabia	17tik 19ra	Lon Apraiz
6tik 9ra	Amaia Zalduegi	20tik 23ra	Hiart Burgoa

APRAIZ.....630 05 50 97 ZALDUEGI.....669 26 22 01
OTXAGABIA..689 58 57 59 BURGOA..... 667 33 88 90

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Ondo pasa Malen jaixak!
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarminaeraiketak.com
www.sagarminaeraiketak.com

KALEKO ZARATAK

Aurtengo neguan ospetsua izan da tabernen itxiera ordutegiaren inguruko eztabaida. Itxuraz, eztabaidaren ardatza zarata izan da. Izan ere, goizaldeko orduetan tabernetan sortutako zarata jasanezina bihurtu da auzotarrentzat. Egia esan, atseden hartu ahal izatea gauza handia da, eta behar den moduko atsedena ezin hartzea ere arazo handia izango da.

Eta udalak auzotarren atsedenerako eskubidea babestearren neurriak hartu ditu, Eusko Gobernuaren ez dakit zein arautan oinarrituta. Tabernak ordu jakinetan itxi beharko dira, astegunetan zein asteburuan, eta barruan dauden bezeroak ere ordu jakinetarako alde egin beharko dute tabernatik.

Hortaz, gaba lotarako, eta parranda egin nahi izanez gero, parranda motza.

Eta gabeko zaratak zaintzen badira, eta horiek zaintzeko neurriak hartzen badira, zergatik ez da gauza bera egiten eguneko zaratekin?

Izan ere, goizean goiz kalez kale dabilen mankomunitateko makina zaratatsuak oraindik ohean azken amets goxoetan dagoen herritarraren atsedena urratzen baitu. Askotan, gainera, garbiaren gainetik pasatzen dira garbitzeko ez dagoena garbituz!

Eta zer esan motorrei buruz! Eguneko edozein ordutan, baina bereziki gauetan kaleetan gora eta behera buelta bat eta beste bat eta auskalo zenbat buelta ematen ibiltzen diren eskuterrek sortutako zarata desatseginak betetzen al ditu udalaren ordenantzetan jasotakoak?

Tabernetako zaraten inguruan horrenbeste eta horrenbeste hizketan egin bada, ea animatzen diren eguneko zaratei buruz hizketan hastera, eta, noski, zarata horiek zaintzeko neurriak hartzera ere bai.

Andiko

BERRIRO MUTRIKU-SASIOLA

Isilpean pasatu da Mutriku-Sasiola errepide berriaren Eraiketa Proiektoari alegazioak egin ahal izateko jendaurrean egon den epea; isilpean joan da, baina mutrikuar askori buru-hauste latzak ekarri dizkio, gure azken baserritar batzuei eta baita benetako jasangarritasunean sinisten dugunoi eta diru publikoa zentzuz eta sozialki justifikatuz erabiltzea nahi dugunoi.

Euskal Herriko beste herri guztietan ez bezala, gure herrian ez dugu normalak diren aliatuak aurkitzen. Izan ere, alderdi batzuk beti izaten dira erreferendunaren aurkakoak, baita lotesleak ez direnean ere; nik dakidanez kasu bakarrean deklaratu da erreferendunaren alde (hitzez behintzat), baina normalean erreferendunaren defendatzaile suntsuak diren alderdiak Mutrikun txintik ere ez dute esan.

Eskutitz honen bidez jakin ezazue herritar guztiok *Mutriku Natur Taldea*k eta *Berdeak+Independienteak* taldeak alegazio sorta bat aurkeztu dugula bide berri hori egiteko proiektuaren aurrean, eta zorionez (guretzat) denboraldi baterako proiektua atzeratzea lortuko dugula. Oraingoz ez dugu lortuko proiektu hori deuseztatzea, baina seguruenez gehienoi burutuko zitzaizuen aurreikusita daukaten 78 milioi euro (13.000 milioi pezeta) gastatzeko era egokiagoak.

Batzuek gratis dela pentsatu arren, jakin behar dugu hemen gastatutako diruak faltan botako direla beste arlo garrantzitsu batzuetan, eta arlo garrantzitsuak zein diren denon artean erabaki behar dugula, helduak garelako eta gure bizi kalitatea jokoan daukagulako.

Orain, alegazioei esker ireki behar den inpas honetan, momentu egokia iruditzen zaigu herriari behar den informazioa zabaltzea, bide berriaren eraiketak sortuko duen aldeko eta kontrako eraginak zehaztea, aldeko eta kontrako posturaren artean debate publiko bat egitea eta normaltasun osoarekin herri galdeketa bat egitea.

Egia esanda nazkatuta gaude batzuen aldetik "orain ez da momentua" entzuten, "berandu da" entzuten, eta harrituta beste alderdiek mantentzen duten isiltasunagatik, beren ildo politikotik eta filosofiari ihes egiten.

Gure alegazioei esker Ingurumen Azterketa berri bat egin, Mutrikuko Arauak aldatu, eta hainbat txosten berri egin beharko direnez, ORAIN INOIZ BAINO MOMENTU EGOKIAGOA DA ERREFERENDUM BAT BULTZATZEKO.

Badakigu kasu handirik ez digutela egingo... Gustatuko litzaiguke Amenabar eta Financiera y Minera harrabo-jabeei adina kasu egingo baligute Diputazioko agintariek! Izan ere, bide berriaren eraiketan sortuko ziren soberakin lurrak botatzeko aurreikusita zeukaten bi eremu, Olatz eta San Blas harrobi-ustiaketen lekuak, gabetik egunera "salbatu" egin baitira espropiazio prozesutik, bietako lehenak, gainera, alegatu beharrik izan gabe, horretarako esistitzen dutelako "telefono zuzenak".

Rafa, Txanbolin

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Gora Malenak!
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
ONDO PASATU MALENAK!
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

Aupa Malenak!
IBARPLAS
Zure neurrirako leihoak,
kalitatez jarritako eta bukatutakoak!
Pol.Ind.Itziar-Tel :943 199 226 - Fax: 943 199 196
Web orrialdea: www.ibarplas.euskalnet.net
E-mails: ibarplas@ibarplas.euskalnet.net
20829 ITZIAR (Gipuzkoa)

Uztailaren 15ean Madrilgo Auzitegi Nazionalean izan dute hitzordua Udalbiltzako hogeitabi auzipetuek. Hautetsiez gain bertako hainbat langile ere jarriko dira epailearen aurrean. Herri akusazioak 10 eta 23 urte bitarteko gartzela zigorrak eskatzen ditu.

Ekainaren 22an Loren Arkotxa auzipetuetako batek solasaldia eskaini zuen Zabielen. Bukatu ondorengoan bere denboratxo bat eskaini zion Kalaputxiri.

Zazpi urte eta gero hau…

Zazpi urte dira erasoa gertatu zenetik, hainbat hautetsi eta langile atxilotuak izan ginen, genituen egoitzak itxi zituzten, gure kontuak izoztu, Zuberoan inbertitzeko bildutako dirua konfiskatu… eta ez aurrera eta ez atzera gelditu zen gure plangintza osoa. Esan behar dut Udalbiltza moduko erakundeak badirela Europan zehar eta lagundu egiten diete, Espainiako estatuak, aldiz, egurra baino ez du ematen. Zergatik? Espainiako estatuak badaki Euskal Herriak nortasun propioa izan duela eta duela, eta ez du hori onartu nahi. Guk gure ahalmen politikoa eskuratu nahi dugu.

Uztailean abiatuko zarete Madrilera…

Uztailaren 15ean eta 16an hasiko da epaiketa. Hurrengo astean beste bi egunetan eta abuztuan etena izango da oporrengatik. Ondoren, irailaren 7, 8, 9, 13, 14 eta 15ean. Ikusten duzu zein data xelebreak diren. Uda, oporrak… jendea beste giro batean murgilduta dagoenean, baina gure esku ez dagoenez, hori ere onartu egin behar.

Zein aldarterekin zoazte Madrilera?

Oso-oso kezkatuta gaude. Auzitegi Nazionalera zoazenean badakizu zein atetatik sartuko zaren baina nondik aterako zaren ez. Poza hartu genuen Egunkariaren auziaren ebazpenarekin, baina gurea erabat desberdina da. Egunkariakoan fiskalak ere absoluzioa eskatzen zuen, gurean, aldiz, fiskalak salaketak mantentzen ditu, eta Dignidad y Justiciak gartzela zigorrak eskatzen ditu eta ez nolanahikoak, 10 urte guztiontzat eta batzuentzat 23 urte bitartekoak.

Bestalde, gure abokatuek 68 froga aurkeztu zituzten gure izaera eta ibilbidea frogatuz, ba hauetako bat bera ere ez dute onartu, denak pikutara bidali dituzte. Bi peritu ere aurkeztu ditugu, Udalbiltzaren funtsa argitzeko eta zehazteko… ba horiek ere kendu egin dizkigute. Hau gutxi balitz, 120 lekuko aurkeztu genituen eta Gomez Bermudez epaileak 25era murrizteko eskatu zigun. Azkenean 17 baino ez dizkigute onartu. Kanpoan gelditu direnak kanpoko lekukoak izan dira, Ipar Amerikatakoak, Europakoak… politikariak, akademikoak… Ipar Euskal Herrikoak eta Hegoaldekoak ere bai. Mediatikoki garrantzia zuten denak kendu dizkigute. Frontoira garamatzate pelotan jokatzera baina eskuak lotuta.

Kezkatuta goaz eta era berean lasai gaude badakigula-

ko zertan aritu garen. Euskal herrigintzan ibili gara. Gure ustez gauzak ahalik eta ondoen egin ditugu, behintzat saiatu gara hala egiten.

Udalbiltzaren sorrerara joanda…

Lizarra-Garaziko akordioaren testuinguruan sortu zen. Irlandan ere aurrera pausuak ematen ari ziren… giroak eskaintzen zuen aukera aproposa zela iruditu zitzaigun eta tresna instituzionala sortu behar zela iruditu zitzaigun, Euskal Herri osora hedatuko zena, Euskal Herri osoan lan egingo zuena eta horretarako udalak ziren bitartekorik egokienak, udal hautetsiak. Denen oniritziz abiatu zen Udalbiltza, denen onarpenarekin hasi zen urratsak ematen.

Baina denentzat ez izan gogokoak…

Ez, hala da. Badakigu euskalgintzan, herrigintzan dabilen edonork txartel asko dituela atxilotua izateko, epaitua izateko, gartzelan bukatzeko… Euskal Herrigintzak espainiar estatuari mina egiten dio, beldurra ematen dio. Euskaldunok dugun kemena eta indarra ezabatu nahi du, gelditu, jendea uxatu, eta zigorra da eskaintzen duen bide bakarra. Euskal Naziogintzak beldurra ematen die eta moztu nahi dute.

Euskal Herrian eta hemendik kanpo ere babesa jasotzen…

Laguntza eta babes handiak jasotzen ari gara eta horrek ikaragarri indartzen gaitu. Astero dira elkartaratzeak herri eta hirietan, kultur mundukoak, kirolariak, herritarrak… Garai ilunak datozkigu eta denen beharrean aurkituko gara. Eta, benetan, asko eskertzen ditugu jasotako indarrak eta animoak, baina kezka gurekin dugu.

Karga ekonomikoa ere handia…

Izugarria da. Zenbakiak eginda pentsatzen dugu hamar mila eurotik behera ez dela izango bakoitzaren gastua. Hondamendia da edozeinentzat. Hala ere lerro hauek nahi ditut probestu eskerrak emateko gure errugabetasunean sinisten duten guztiei. Denen epeltasuna eta babesa nahi dugu.

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa...
Gora Malexaki!
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

BARE - BARE
TABERNA
gosariak, pintxoak, bokatak...
etorri gurekin txalaneak
gire ohean pasatzera!

anima zaitez gure karta
berria dastatzera !
KAI
jatetxea
magdalena, 4
943603344

SEI LAGUN, HANDIETAN HANDI

Herriko sei herritarrek parte hartu dute aurtengo Hiru Handien lasterkako proban. Atharratze Beristainek 54. postuan zapaldu zuen helmuga. Horretarako, 16.07 behar izan zuen. Ordu batzuk beranduago, 22.20ko denbora eginez, hirukotea sartu zen: Ainara Burgaña, Leire Arrizabalaga eta Ainhoa Badiola. Beste biek, Amaia Lasarte eta Jone Azkarate, gorputzak bale esan zien arteko bidea egin zuten. Urbixa inguruan gelditu ziren, 57. kilometroan. Probak Gorbea, Anboto eta Aizkorri egitea eskatzen du, hau da, 100 kilometroko bidea. Probaren gogortasuna tarteko, parte-hartzaile guztien meritua begi bistakoa da. Bejondaiela! ✘

IRAILERA ARTE, SATURRARANEN TAO

Irailaren bukaerara arte, Saturraranen aparkatzeagatik ordaindu egin beharko da. Aparkatzerakoan, gutxienez, ordubeterako eskubidea ematen duen euro bat ordaindu beharko da, eta, gehienez, hamar orduz egon daiteke bertan. Badira bonoak ere: bost ordu lau euro, eta hamar orduak zazpi euro. Herritarrek, Udalak emandako pegatina bat tarteko, ez dute ordainketarik egin behar. Ekainaren 1ean hasi zen zerbitzua martxan, eta astelehenetik barikura, 10.00etatik 20.00etara bitartekoa da. ✘

TXISTULARI KONTZERTURIK EZ DA IZANGO

Malen aurretik, besteak beste, Debabarrenako txistulariek kontzertua eskaintzen dute urtero. Aurten, ordea, eten bat egin beharrean daude. Beraz, aurten ez da txistularien kontzerturik izango. Hori dela eta, txistulari taldeak euren kontzertuetara urtez urte joan direnei eskerrak eman nahi dizkiete, eta aurten posible ez den arren, hurrengo urteetan jarraitzeko asmoa dutela argitu dute. ✘

komikixa — **josu ituarte "pitxame"**

XANTI BELAUSTEGIRI OMENALDIA DEBAN

Basatxori Kantarien Txapelketako sariak banatu aurretik, eta giroan murgilduta, Shuberten "Ave Maria" arpaz eta biolinez interpretatuta fondoan entzungai genuela omenaldi beroa egin genion gure lagun maite Xanti mutrikuarrari, berriki zendua. Txorien lagunak gaztetatik eta pasioz bizi izan zuen gure afizioa. Haren oroimenez, plaka bat oparitu genion bere familiari (nahiz eta ez ziren bertan egon, heriotza gertatu berri zegoen eta).

Plaka hartan bertso bat irakur zitekeen, eta hemen albora ekarri nahi izan dugu oraingoan.

Zeru Hertz batetik eta besteraino, ez dago politagorik txori alai baten kantua baino. Guk horrela sentitzen dugu, eta gure lagun Xantik ere horrela sentitzen zuen.

Badakigu hemendik aurrera,
Mendian,
Askatasun zabalean,
Txoriz jantzia ibiliko zarela,
ALAI,
Irribarrez;
Eta zure doinu oparoen altzoan,
Baso eta zelai ederretan,
Haize garbitan
Zu sentitzerakoan,
Pozez aseko zaigu bihotza.
Agur Xanti! Agur adiskide!

Bittor Arizmendiarrieta

BANDAREN GAU MARTXOSOENA

Berria, freskoa, gaztea… Horrelakoa izan da herriko bandak eskaini duen azken fusio-esperimentua. Bandako instrumentuekin mota askotako musika jotzea posible dela erakutsi zuten, eta ohikoagoak diren piezak baztertuz, Pink Floyd, Metallica, Michael Jackson edota Queen bezalako musika taldeen piezak aurkeztu zizkioten kiroldegia bete zuen publikoari. Horretarako, inoizko muntaia handiena prestatu zuten, eta, besteak beste, Madalen abesbatzakoen ahotsak eta gitarra elektrikoen zein baxuaren soinua izan zituzten lagun; baita dantzari taldearena eta graffitero batena ere. Emaitzarekin gustura gelditu ziren bai antolatzaileak baita ikus-entzuleak ere. ✘

UZTAILAREN 30EAN, BERTAN EGUNA

Azken urteetan bezala, BERTAN Mutrikuko Merkatarien Elkarteak udako jaialdia antolatu du uztailaren 30erako. Egun osoa hartuko duen jaialdia goizeko 11etan hasiko da umeentzako jolasekin, Zabiel plazan. Arratsaldean ere umeentzako jolasak izango dira Beheko plazan, 4retatik aurrera, 63tan txarangak herriko kaleak girotuko ditu eta 7,30etan erraldoiak eta buruhandiak ibiliko dira kalez kale.

Egunari bukaera egokia emateko, arratsaldeko 8etan eta Beheko plazan, uztailean zehar egindako erosketekin betetako kupoien artean zozketa egingo da eta 100 euroko sei sari banatuko dira BERTA-Neko establezimenduetan egindako erosketak eskertzearren. ✘

ARTE, SATURRARANEN TAO

Mijoa industrialdearen bigarren faseari hasiera ematera zihozela zirudienean, berriro ere tramitazioaren hasierako puntura bueltatu behar izan du Udalak. Forma akats bat izan da horren eragilea; hau da, tramiteetan egin beharrekoa zen zerbait egin ez izana. Zehazki, proiektuaren motibazioa jasotzea falta da. Behin hori eginda, orain arte Osoko Bilkuran onartutako agiri berberak onartzea tokatuko zaie.

ELORRETA, S.L.
ERAIKETAK · ERREFORMAK · IGELTSERITZA
Ondo ibili Malenetan!
Asier Lersundi
680 579 961
Kepa Martinez
617 842 004
San Agustin 48 · MUTRIKU · Tel. eta Fax 943 604 327 · elorretaeraiketak@gmail.com

Zure establezimenduaren berri mutrikuar guztiei emateko...
KALAPUTXI
Luardo etxea, behea · Barrenkale, 12 · Tel. 635748393
kalaputxi@topagunea.com

50 URTE APAIZ

Javier Basurko eta Anjel Bazterretxea "Kelco"

Aurten beteko dira 50 urte Anjel Bazterretxeak eta Javier Basurkok lehen meza eman zutela Mutrikuko parrokian, Madalen egunean batak eta San Inazio egunean besteak. Gertaera horietan herritar multzo handia izan zuten lagun.

Mutrikuarrontzat efemeridea izan zen hura gogoratu nahi izan dugu gaurkoan Kalaputxiren orrietan, eta Anjel Bazterretxeak lagundu digu asper gabeko solasaldian, denboraren zurrunbiloan barrena, aurrera eta atzera bide egiten.

Egin dezagun denboran atzera, Anjel. Nola deskribatuko zenuke orduko giroa?

Apaizgai giroa azalduko dut lehenbizi, eta kopuruetan sartuko naiz egoeraren zer nolakoa oso garbi azaltzen duelako. Saturrarango seminarioan apaizgai ikasketak egiten hasi nintzenean, beste lau mutrikuar sartu ziren nirekin batera. Ohikoa zen haur kopuru hori, ia urtero, seminarioan hastea, nahiz eta bidean askok utzi egiten zuten. Maila orokorragoan, Gazteizko elizbarrutia zatitu zenean, eta Bizkaikoa zein Gipuzkoakoa sortu, haueta-ko bakoitzak, euren beharrei erantzuteko, bere seminarioa behar zuela erabaki zuten norbaitzuek, eta Donostiako eta Derioko etxeak eraiki zituzten. 1954. urtean inauguratu zuen Francok Donostiako seminarioa, eta hara pasatu ginen 400 bat apaizgai. Bizkaian 500 bat izango ziren, Gasteizen 300 bat, Iruñean beste 300 bat, eta Baionan 100 inguru. Gure Euskal Herri txiki honetan 1.200 apaizgai.

Baina apaizgai kopuru horietara iristeko inguruko giroak zerikusi handia zuen; Luistar eta Mariaren alabek osatzen zuten baratzetatik ateratzen ziren erlijio bidea aukeratzen zuten gazteak. Orduko bizitzaren ardatza eliza zen, eta haren inguruan antolatuta zegoen gure gizartea.

Gure bizitza, apaizgaiena, otoitzera eta ikasketara zuzendua zegoen eta albo batera uzten genuen mundua. Seminarioan geundela, fraide komentuetakoa bezalakoa zen gure bizitza, eta ez zen asko aldatzen oporraldietan ere. Nahiz eta ez zen ohikoa, ni nire lagun koadrilarekin ibiltzen nintzen denbora libreetan, eta

> Javier ordenatu zen egunekoa.

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Malen jai zoriontsuak opa dizkizue
943 60 35 44

ONDO PASA MALENAK
ALDATU
DEKORAZIO ETXEA
BEHERAPENAK
Konde kalea, 4 eta7 - Mutriku
Tel./Faxa: 943 60 45 93
kontxa-aldatu@hotmail.com

tabernetara ere sartzen nintzen –ia eskandalua zen hori–, baina futbol partiduak ikusi eta zinera…, inoiz ez: debekatuta genuen filmak ikustera. Orokorrean elizako eginkizun eta ofizioek zuten garrantzi handiena. Hala ere, baziren ikuspuntu ezberdina zuten apaizak. Ez zait ahaztuko nola Don Andonik, irakasle izan genuen eta orain hilabete gutxi hil zen abade ondarrutarrak zioena: "Gixontasune bir de", eta bertute naturalei ematen zien indarra. Maitatua izan genuen Don Andoni, ezberdina eta hurbilekoa zelako.

Apaiz egiteak garrantzi handia izango zuen familia-koentzat?

Nola, ez! Gizarteak begirunea bazien apaizei, pentsa zer izango zen semea, anaia edo neba, etxekoa!, abade izatea. Kontuan izan, orduko pentsaeran, Jainkoak aukeratuak ginela, izan aurretik, mundu honetan bere leluko izateko!

Baina 50 urte igaro dira. Nola ikusten duzu ibilbide hori?

Arestian seminarioen egoera azaldu dut orduko ikuspegia ikusten laguntzeko; adibide bera erabiliko dut gauzak nola aldatu diren azaltzeko. 1953an seminarioek halako indarra izanik, denbora motzean, historian zehar 15 urte lipar bat besterik ez baitira, zeharo aldatu zen egoera. 1968an oso apaizgai gutxi zeuden, banakak ziren ordenatzen zirenak, eta denbora igaro ahala, begira zertan bilakatu diren gure seminarioak: Deriokoan hotelen bat dago ezarrita; Donostiakoan biblioteka, teologia eskola…; apaizgaiak eskuetako hatzaparrekin kontatzekoak dira.

Zer esan nahi du horrek? Asko aldatu dela gizartea, eta berarekin batera baita eliza ere. "Aggiornamento" zioen Juan XXIII Erromako apezpikuak: egunean jarri, berregituratu, berreraiki. Hori nola aurrera eraman izan zen Vatikanoko kontzilioan bildutakoen eginkizuna. Eta ideia horiekin eman ziren garrantzizko pauso ugari, nahiz eta eten bat gauzatzen ari dela dirudien.

Ordukoa eta gaurkoa konparatuz, fedea krisian dagoela diote batzuek, baina fedea era ezberdinetan uler daiteke, eta nire ustetan gero eta garbiago azaltzen doa. Erritoetan oinarritutako fedea, nahiz eta kostatu, alboratzen goaz, eta esplikatu ezin diren dogmei ez diegu ematen lehen ematen zitzaien garrantzirik, bizitzari gauza baikorrak eskaintzen ahalegintzen gara, eta hori da nire ustetan fedea gizatiartzea.

Bi hitzetan esanda, zailtasunak denok astindu gaitu, baina ordukoa baino fede handiagoa, sakonagoa eta garbiagoa dugu, eta niretzat garrantzia handiena duena: mundu honi zuzenean lotua.

Madalen egunean Mutrikun izango al zara?

Jakina! Orain dela 50 urte meza eman nuen toki berean izateko asmotan naiz.

Zerbait, mutrikuarrei orri hauetatik esateko?

Ze esango dixuet ba, zintzuak eta onak izateko, baiña iñuxentiak ez, eh! Eta harrokeixak ere albo batera lagatzeko; hori bai, mila kintxaletik gora harrapau ezkeo, pixkat harrotzeko eskubidia ere bado!

> Anjelen lehen meza ondorengo esku muinak.

Jostorratzak, titareak... eta lagun elkartea

Aurtengo ikasturteari amaiera emateko, eskuz jositako oheestalki dotore bat jarri dute zozketan Zabieleko jostunek. Honezkero ikusiko zenuten, beheko plazako eskaparate batean jarri dute-eta. Ikusgarria da, benetan! Zozketa horretatik ateratako dirua sortu berri duten elkarterako izango da. Elkarte berriari eta martxan jarri nahi duten proiektuari buruzko berriketalditxo bat izan dugu Mertxe, Marisa, Narcisa eta Ana taldekideekin.

Elkarte berri bat sortu duzue, zein asmorekin?

Ikusi genuen hobe zela elkarte bat sortzea laguntzak lortu ahal izateko. Udaletik eta edozein lekutatik laguntzak lortu ahal izateko elkarte bat eduki behar izaten da-eta. Gabonak aldera sortu genuen Zabiel Eskulan Taldea, Emakume Kultur Elkartea. Horixe da gure elkartearen izena.

Noiz hasi zineten hemen Zabielen?

Badira hiru urte hasi ginela. Ikasi eta elkarri erakusteko biltzen gara. Patchwork, gantxiloa, puntua eta joste-lanekin lotutako beste hainbat gauza egiten ditugu: ume-arropak, mantoiak, bufandak, txapelak, boltsak… Hasieran, patchwork ikasteko eta lan-mota horretan sakontzeko bildu ginen —Mª Angeles "Txilin", Kataluniatik etorritakoa, izan genuen irakasle— baina, gerora, denetik egiten dugu. Bata amona izan behar dela eta besteak ez dakit zer egin nahi duela, aldizkari batean ez dakit zer datorrela edo Donostian eskaparatean ez dakit nolakoa ikusi duela… eta elkarri erakutsiz ibiltzen gara, gustura.

Proeiktu polit bat daukazue eskuartean.

Datorren ikasturteari begira ikastaro berezi batzuk antolatu nahi ditugu, haur eta gaztetxoentzako joste-tailer bat sortu nahi dugu; neska zein mutilentzakoa izango da. Badakigu mutilak hurbiltzea zaila izango dela, baina saiatuko gara. Proiektu honekin belaundaldien arteko harremana estutu nahi dugu, elkarren arteko hartu-emana sendotu. Adinekoek umeei irakatsiko diete. Horrela, josten ikasteaz gain, beste balore batzuk ere transmitituko dira. Gure haurren interesak eta gaitasunak zabaldu nahi ditugu; dena ez da Nintendoarekin jolastea, beste trebetasun batzuk ere irakatsi behar dizkiegu euren bizitzan zehar autonomoagoak izan daitezen, inork ez daki-eta zeren beharra izango duten!

Noiz zabalduko da tailer hori?

Irailean edo urrian hasi eta ekainera arte. Agian, ikastaro motzak ere izan daitazke, urte osokoak izan beharrean, hori luze joaten da-eta. Gainera, haur bakoitzari josteko kit bat emango diogu, oinarrizko gauzekin osatutakoa. Josten ikasteaz gain, belarritakoak eta horrelako pitxiak egiten ere irakatsiko diegu, erakargarriagoa izan dadin eurentzat.

Nola konponduko zarete?

Taldeak osatuko ditugu geure artean, batzuek gauza bat egiten dakite eta beste batzuek beste zerbait. Geure artean antolatuko gara irakasle lanetarako. Tailerra ostiral arrtsaldetan izango dela uste dugu. Guk borondatez lan egingo dugu. Gainera, esan behar da oso harrera ona izan duela ideia honek gure artean eta jendea prest daukagula irakasle lanetarako.

Ez duzue ezer antolatu behar zeuontzat?

Geure artean galdeketa antzeko bat egin genuen eta erantzunetan ikusi genuen informatika dela gehien interesatzen zaiguna. Batez ere Internet erabiltzen ikasi nahiko genuke. Orain, Udalarekin ari gara informatika ikastaroren bat antolatu nahian. Ikusiko dugu.

Zozketa uztailaren 25ean, ordu bietan egingo da Txurruka plazan. Azkar ibili zenbakirik nahi baduzu!

PANADERIA POTERO OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12
Gure Maiza jatsuk!

Ondo pasatu Malenak!
JARRI-TOKI
Jatetxea
- Eguneko menua eta karta
- Familia giroko bazkariak
- Enpresa bazkariak
- Ezkontza, bataio, jaunartze...
Tel. 943 60 32 39 MUTRIKU

uztailak 30 BERTAN eguna

ALAZNE OPTIKA	943603154
ADATS ILEAPAINDEGIAK	943603945
ALBARO DENDA	943603348
ALBOKA OKINDEGIA	943604673
ALDANA BURDINDEGIA	943029217
ALDATU ETXEA	943604593
ALEGIAZKO MUNDUA	943029347
IÑARRAIRAEGI BILTEGIA	943603938
AMALUR EKODENDA	943604742
ANSORREGI OINETAKOAK	943603342
APAIN estetika eta terapialnstitutua	943604229
APARRA-KRESALA	943604594
ARNO OKINDEGIA	943607159
ASTIGARRAGA ANAIAK	943604086
ATXUKALE KIROLAK	943603959
BARRENKALE-POTERO	943603643
BERISTAIN LIBURUDENDA	943603494
BUCEO EUSKADI	943195088
GALDONA KANPIÑA	943603509
ERDIKO MERTZERIA	665715039
GOTZON ARRANDEGIA	943604602
GUADALUPE ELIKAGAIAK	943603543
IÑIGO-BELEN	943603701
IPARRAGIRRE ALTZARIAK	943603979
IRAIA LARRAÑAGA lleapaindegia	619764886
IRIPE ELEKTRA SALMENTA	943603347
JOSEBA I. ELEIZGARAI masajista	630788054
KIRIK GOZOTEGIA	685784465
KULISKA TABERNA	943029198
LEAR ERROPA DENDA	943603746
LON APRAIZ BOTIKA	943603250
LORETXU TABERNA	
MADARIAGA PAPERDENDA	943604423
MANEIRO LENTZERIA	943603176
MGS ASEGURUAK	943607022
MICROSYSTEM	943195042
OLAIZOLA UME JANTZIAK	943195074
PINPIRIN ESTETIKA	943029134
SAGARMIÑA ERAIKETAK	943192249
URKIRI ELIKAGAIAK	943603680
ZELAIETA JATETXEA (Olatz)	943195109
ZIBOT ERROPA DENDA	690840579

mutrikuko merkatarien elkartea


Hi, I
Malene
euskara

ajke!
lagun
tan ere
z jardun!

Estetika eta Terapia Institutoa

Fisioterapeuta tituluduna

1- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

2- Masajea :

- Estetikoa
- Terapeutikoa

3- Drenaje linfatikoa

4- Depilazioak :

- Beroa
- Hotza
- Elektrikoa
- Laserra

5- Pedikura - Manikura

6- Makillajeak

7- Mikropigmentazioa

8- Dietista

GALILEO FITNESS

ariketa eta terapia

ongizate eta edertasunaren gunea

Beheko Plaza, 5
Tel.: 943 60 42 29
20830 Mutriku

DAGOZKIEN ESKUBIDEEN JABE

Borroka gogorra izan arren emankorra da beti. Horretan dihardugu urte hasieratik. Urtarrileko saioak jarraipena izan du espetxe guztietan ekimen iraunkorrarekin. Estatus Politikoa aldarrikatzen dugu, barne biltzen duen eskubide sortaren jabe Euskal Herriratzea eskatuz. Espetxe egoera latzenak ere agerian utzi nahi ditugu, biziarteko zigorraren aplikazio arbitrarioek bahiturik dituzten hamarnaka kideek egoera, gaixotasun larriekin diren kideena, isolaturik direnena...

Martxoan, eskerok indartzeko 21 espetxetan protestaldiak intentsitate haundiagoz garatu ditugu. Preso multzo bat izan gara bultzada honetan parte hartu dugunok, propaganda lanak egitetik gose greba luzeak egiteraino. Ordainean aldiz, zigorra jasotzen ari gara.

Datozen hilabetetan martxokoa bezalako ekimena aurreikusten dugu, eskubideen errespetuan bidea egiten segitzeko erabakia dugu.

Agur eta ohore, Jon Anza. Bere hautuaz inoiz damutu gabekoen zerrenda luzean dugu Jon. Eritasun larria ere ez zuen oztopo izan borrokan segitzeko. Non da Jon? Galdetu dugu harresi barrutik. Zer egin duzue berarekin? Galdetzen dugu orain gure erraietatik. Desagertarazi dute bizirik eta agertarazi hilik. Gorpuak baina, arduradunak seinalatu ditu. Alliot Marie eta Rubalcaba aferaren zingiran hondoratuko dira, hamaika egunez eta hamaika hilabetez bahitu eta heriotzera eraman dutenak. Estatuen ahultasun demokratikoaren paradigma da gerra zikina. Gerra zikina Estatu zapaltzaileen ezina. Independentziaren hautuaren paradigma dugu Jon. Biba Jon!

Euskal Herrian eta libro bizitzeko eskubidea eskuratu bitartean ez dugu etsiko, preso gaixo larri guztiak kalera! kondena beteta duten kideak kalera! Euskal Presoak, Euskal Herrira!

amnistia eta askatasuna

Gazteen elkarguneak

Ohituren aldakuntza nabaria egiten zaio adinean sartuta dagoen edonori, eta 30 urteetan sartuta dauden zenbaiti ere entzun izan diegu "oraingo gazte hauek...", eta jokamolde berriak aipatzen dituzte. Ohitura berri horietako bat bilguneena da. Bederatzi lokal, soto edo lonja omen daude Mutrikun Gaztetxeaz gain, eta horietan 200etik gora gazte biltzen dira.

Gaztetxe eta lokal horietako ordezkari batzuekin egina genuen zita "Patzer" taldearen lonjan, euren berri gure irakurleei emateko asmoz, eta, uste ezean, une horretan lokalean zeuden guztiek hartu dute parte aktiboki eta naturaltasun osoz elkarrizketan.

Zerk bultzatu zaituzte edo zergatik lokal hauek alokatu eta atontzera?

Agian motibazio ezberdinak egon daitezke, baina, gure kasuan, lokal baten beharra sentitu genuenean tabernak besterik ez genituen bilgunetzat, ez zegoen orduan Gaztetxerik ere, eta tabernek ez dute ematen lagun koadrila handi batek behar duen beste eskaintza. Pentsa, gu bezalako koadrila bat -25 lagun gara- taberna baten sartzeak zenbat arazo sor ditzakeen; hori dela-eta, talde txikiagotan mugitzera behartuta geunden, eta koadrila gero eta sakabanatuago ibiltzen zen, harreman zabalagoaren kaltetan. Bestalde, lokalek beste onura batzuk ere ematen dizkigute: ekonomikoa, tabernetan ibiltzea baino merkeago gertatzen zaigu; askatasuna, ez gaude ordutegi bati lotuta, edozein ordutan erabili dezakegu, eta taberna baten inoiz izango ez duzuna: intimitatea.

Nola antolatzen zarete hau guztia aurrera eramateko?

Lehenengo pausoa, lokal jabearekin kontratua betetzea. Bi arduradun aukeratu genituen horretarako, eta beste guztion sinadurekin bete genuen baldintza. Ondoren, lokalaren mantenua egiteko, taldeka banatuta ditugu ardurak: garbitasunarena, ekonomikoarena, atontzearena, erosketarena..., eta, orain arte, ondo daramagu asuntoa.

Eta zuek, Gaztetxekook, nola moldatzen zarete?

Gaztetxea herriarena da, eta barne antolaketa hauen antzera dugu prestatua, baina egia esanda, ez gara iristen koadrilak duten jabetasun sentimendu hori izatera: gehiago kostatzen zaigu maila bat lortu, eta horretan mantentzea. Agian, adinak ere zeresan handia du, Gaztetxearen inguruan gabiltzan asko unibertsitatean edo kanpoan estudiatzen ari gara, eta, jakina, asteburuetan bakarrik izaten dugu biltzeko aukera azterketek ez badigute oztopatzen, eta hori handicap handia da.

Horrez gain, gure harremanak Mutrikutik kanpo ere zabaltzen dira, eta zonaldeko gaztetxeekin koordinatzen gara zenbait egitarau aurrera eramateko: "Plazatik gaztetxera" bertso txapelketa da horietako adibide bat, baina ekologia, drogak, euskara, sexualitatea, eraikinen okupazioa, etxebizitzak... eta beste zenbait arlo ezagutzen saiatzen gara. Beti ere, gure dinamikak gora-behera nabariak izaten ditu; jakina, Gaztetxean jarduten duten gazteak ere aldatzen doaz zikloka.

Badirudi batzuok esparru zabalagora zabaldu nahi duzuela, eta besteok zuen koadrilara mugatzen zaretela; hala al da?

Ba..., ezin dugu ukatu nahiko pasiboak garela lokaletako jendea talde bezala. Gauzak bakarka egiten

MUTRIK
aholkularitza
Komunitateen administrazioa, aseguroak,...
Arreta pertsonala eta prezio konpetitiboak
mutrik2010@hotmail.com · Tel.: 620 28 39 16

Gora Malen jaixak!
Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

ditugu edo bakarka hartzen dugu parte herriko dinamikan, baina guk behintzat ez dugu inoiz ezer taldean planteatu, ez eta ukitzen gaituzten gaietan ere: tabernen itxiera ordua dela-eta, adibidez.

Zer egiten duzue lokaletan?

Oso bitxia da urteetan gertatzen den eboluzioa. Adin bakoitzean nahi edo behar ezberdinak izaten dira, eta behar horietara zuzentzen ditugu gure ahalak. Orain dira pantailetako jokoak, bestean ping-pong jokoa, hurrenean ordenadorea, telebista..., eta begira zeintzuk izan diren gure azkenekoak: puzzle handiak, arrainontziak eta itsasontzien maketekin gabiltza oraingoan. Arrainontzietako baten pirañak hazten gabiltza, eta, jakina, horiei jaten emateko animaliak ere hazi beharra dago. Baina gaurko gure denbora gehiena berriketara dedikatzen dugu; pasatu dira, dirudienez, jolas denborak, eta iritzi trukaketan gozatzen dugu gehien. Ez pentsa filosofikoak direnik: ugariena, futbola da, baina politikaz ere jarduten dugu.

Lokalean karrerako azterketak prestatzen ibilitakoak ere badira: hor jarduten zuten hiru lagunek elkarri laguntzen.

Eta ordainketa kontua, gurasoen poltsikoetatik?

Bai. Hala izan zen hasi berritan: pagatik ordaintzen genuen. Gaur, gehienok lanean ari gara edo lanen bat egiten dugu, aldizka bada ere, eta gai gara gure gastuak ordaintzeko.

Zein da gurasoen iritzia lokalei buruz?

Guraso guztiek, jakina, ez dute izango iritzi berdina, baina ez da zaila susmatzea badutela nolabaiteko mesfidantza edo, gutxienez, kezka, eta ulergarria da. Hala ere, badira gure lokalera sartzen diren gurasoak, eta horrela jokatzea aholkatuko nieke aurreiritziak alboratuz, eta besteen artean ikusiko lukete, nire kasuan behintzat, desordenatuagoa dudala etxeko gela lokala baino.

Zer iruditzen zaizue Gaztetxekoei lokalen funtzionamendua?

Gure xedea beste bat izanik ere, inbidia diogu lokaletako jendeak duen jabetasun sentimenduari. Bestalde, Gaztetxeak ere sortzen du mesfidantza puntu bat gure ustetan, baina pertsona nagusiak naturalki sartzen dira gehienetan, herriarena delako lokala, agian.

Zein mezu nahiko zenukete bidali Kalaputxitik?

Lokalak ez direla "gaiztokeixak" egiteko lekuak, eta lasai egoteko.

Patzer koadrilako kideak

IOAR URKIRI, SIRENATXO LIRAINA

Iaz Gipuzkoako txapelduna izan zen bi mila metroan eta krosean korrika, eta aurten ere txapelduna izan da bi mila metroan, eta hirugarren gelditu da krosean. Azken bi urteetan 18 kros irabazi ditu... Korrika eta igerian, bietan da ona, baina ura da gehien gustatzen zaion ingurua, eta horrexi buruz hitz egin dugu berarekin. Lau urterekin hasi zen igerian Ondarroako igerilekuan. 12 urte bete ditu maiatzean, eta hortxe jarraitzen du, gustura asko, gainera; nahiz eta goizean nahi baino lehenago jaiki beharra daukan eskolara joan aurretik entrenatu ahal izateko. Ez dago saiatu gabeko garaipenik. Espainiako Igeriketa Txapelketan parte hartu aurretik hitz egin genuen berarekin, eta hauxe esan zigun: "Finalera iritsi nahi nuke, eta irabaziz gero, hobe!"

Noiz hasi zinen igeri konpetizioetan?
Zortzi urte nituela; ez gara konpetitzen hasten 3. mailara iritsi arte.

Nola joan da aurtengo urtea?
Ondo. Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan lau domina lortu ditut: 200 metro bizkar, 800 metro libre, 4x100 metro errelebo libreetan eta 4x100 metro estilo erreleboetan.

Aurten Bizkaiko selekzioak konbokatu zaitu.
Donostian antolatu zen Harri Garmendia Torneoa, eta han jokatzeko selekzionatu ninduten. Lehenengo aldia zen 50 metroko igerilekuan jokatzen genuena, gu beti 25 metrokoan ibili izan gara-eta. Baina Madrilen uztaillaren 9tik 11ra egingo den Espainiako Txapelketa 50 metroko igerilekuan jokatu behar dugunez, prestaketa moduko bat izan da Donostiako torneo hori. Denborarik onenak geneuzkan guztiak konbokatu gintuen Bizkaiko Selekzioak. Bi urte zaharragokoekin lehiatzea egokitu zitzaidan, baina bi probatan irabazi nuen: 100 metro krolean eta 200 estiloan.

Eta, gainera, Bizkaiko markak hobetu dituzu, ezta?
Bai, bi karrera egin nituen eta Bizkaiko 12 urteko igerilarien errekorra hobetu nuen bietan. Eta badaukat beste errekor bat ere Bizkaian 25 metroko igerilekuan.

> **100 metro krolen daukat aukera, horretan nabil ondoen**

Zein da gehien gustatzen zaizun igeriketa-modua?
100 metro krola.

Zenbat "minima" edo gutxieneko denbora-marka egin dituzu Espainiako Txapelketarako?
100, 200, 400 eta 800 metro libre; 100 eta 200 metro bizkar; 200 metro estilo eta, agian, 100 metro bular ere lortuko dut. Baina lehen zazpiak, seguru.

Eta proba horietan guztietan lehiatuko zara?
Ez, asko jota, hiru probatan lagatzen digute parte hartzen, egunean bat; gehiago ez digute lagatzen, hori eta erreleboak. Entrenatzaileak erabakiko du zein estilotan lehiatuko naizen.

Noiz egiten dituzu entrenamenduak?
Egunero izaten ditugu. Goizeko zazpietan Ondarroako igerilekuan egon behar dugu, eta zazpiak eta laurdenean hasten gara entrenatzen. Gero, handik eskolara.

Zein da zure entrenatzailea?
Joan Busqué. Katalana da, baina Mutrikun bizi da.

Nolakoa da entrenatzailea, gogorra?
Bueno, pixka bat serioa. Egun batzuetan umore onean egoten da eta beste batzuetan ez du hitzik egiten.

Zer moduz eskolan?
Ondo. Datorren ikasturtean institutura joango naiz DBH egitera.

Igeriketak lagun pilo bat eman dit, leku guztietakoak

Musika eskolan ere bazabiltza, ezta?
Bai, pianoa ikasten ari naiz.
Besterik egiten duzu?
Euskal dantzetan ere banabil iazko urtetik. Lagunak apuntatu ziren, eta neu ere bai, astearte arratsaldetan libre neukan-eta.

Beste kirolik gustatzen zaizu?
Bai, futbola gustatzen zait.

Zein duzu gauza guztietara ailegatzeko sekretua?
Ez daukat sekreturik.

Goiz joaten zara lotara?
Zortzi eta erdiak edo bederatziak inguruan, goizean sei eta erdietan jaikitzen naiz-eta entrenatzera joateko. Baina datorren urtean, goizeko seietarako egon beharko naiz igerilekuan, zeren arratsaldetan ez dago entrenatzeko kale librerik eta goizean goiz egin behar dugu, eskolara joan aurretik, ondarrutarrak zortzietan sartzen direlako eskolara egunero.

Zer egiten duzu irabazitako trofeo eta domina guztiekin?
Salan lagatzen ditut; dena kopaz beteta dago.

Zein izan da irabazten zailena?
Euskadiko txapelketetako bat, 200 metro bizkar. Oso gogorra izan zen, hantxe zegoelako mailarik altuena, lehen lau sailkatuek Espainiako "minima" lortu baitzuten. Neuk irabazi nuen, baina segundo baten barruan sartu ziren besteak.

ESPAINIAKO IGERI-TXAPELKETAKO EMAITZA

100 m. krol estiloan laugarrena izan da Ioar, eta Bizkaiko marka hobetu du, 1:44.45eko marka eginda, hirugarrenarengandik ehuneneko batera. Parte hartu duen beste proba guztietan ere finaletara iritsi da. ZORIONAK, Ioar, eta ondo pasa oporretan, merezi duzu-eta!

BRANKAN 90eko hamarkadatik datorren musika taldea dugu. Hiru laguneko musika taldea osatzen dute: baterian haseran Enekoitz Andonegi eta orain Denis Alberdi, Igor Larrinaga kitarrak eta ahotsean, eta Aitor Osa baxuan.

1992ko maiatzean grabatu zuen BRANKAN taldeak lehen maketa *Bota trago bat* izenarekin…

Pufff…..denbora eta gauza asko pasatu dira ordutik. Garai hartan kontzertu pila bat jo genuen (100 inguru), garai ona eta aberasgarria Brankanentzat, alde batetik bestera ibiltzen ginen gure furgoneta zaharrarekin eta lagun on asko egin genituen Euskal Herriko leku askotan.

Urte batzuk beranduago, taldekideek geneuzkan lanbideengatik, ordurarte bezala jarraitu ahal izateko denbora falta somatzen hasi ginen eta ondorioz taldearen martxa motelduz joan zen.

Gero 1998an Enekoitz Andonegi bateriajoleak taldea utzi zuen. Orduan beste fase baten sartu eta urte batzutan Brankan geldirik egon zen.

Etenaldiaren ondoren…

Horren ondoren, 2000. urtean gutxi gorabehera, bateriarik gabe abesti akustikoak sortzen aritu ginan baina kontzertuak bakarrik lagun arteko ospakizun edo jaixetan izaten ziren. Pare bat saiakera egin genituen beste bi bateriajolerekin, baina behin eta berriz, denbora falta arazo sahieztezina zen baterian norbait finkatzeko. 2006an Denis taldean sartu zen arte.

Denisekin baterian, taldea berriro indarberriturik martxan hasi zen. Kontzertu batzuk ematen hasi ginen eta ondo pasatzen genuenez ba jarraipena eman diogu. Hala ere, planteamendu ezberdin batekin, orain askoz kontzertu gutxiago jotzen ditugu eta lasaigo hartzen dugu.

Diska atera berria, *Hondar ale bat* eskuartean duzuelarik, zein da zuen sentsazioa?

Oso ona, hasieran buelta asko eman genion lortu nahi genuen soinuari eta... baina orain uste dugu oso ondo gelditu dela. Andoaingo Garate estudioetan grabatu genuen Kaki Arkarazoren gidaritzapean.

ileapaindegia
Sabanika kalea, 1
Mutriku
Tel: 943 603 945
Ondo pasatu Malen jauxak!
Hondartza kalea, 13
Deba
Tel: 943 19 27 00
berritu zure ideiak!

Estudioa, mendian galduta dagoen baserri bat da eta edurra ere egin zigun… oso gustura egon ginan.

Kolaborazioak egon dira.
Bai, gure Andoni Basterretxearena, nola ez! *Table dance* eta *Informazioeza* kantetan bigarren ahotsa sartu du.

1992ko maketan ere kolaboratu zuen eta beti egon da gurekin, aholkuak ematen eta bronkak botatzen. Eskerrik asko Watx!

Gaur egun, zein da argitalpen baten helburua?
Suposatzen dugu taldearen arabera dela, batzuk pretensio haundiagoak izango dituzte eta beste batzuk txikiagoak. Gurea, diskoa pixka bat zabalduz, gure lana ezagutaraztea da eta honekin kontzertu gutxi batzuk emateko aukerak sortzen badira hobe!

Zertan ikusten duzue aldatu direla gauzak musika munduan?
Galdera zabala… zein mailatan hitz egiten dugun, asko aldatzen dira egoerak. Agian, asko "profesionalanizatu" dela esan genezake, horrek suposatzen duen alde on eta txarrarekin. Bestalde industrializatuago dago dena, merkatuak agintzen du, errentagarritasuna, e.a… modak beti existitu izan dira baina talde batzuen jarrerak eta poseak moda katalogoak dirudite. Lehengo taldeek "karisma" gehiago zuten. Txorrada gutxiagokin, gehiago esaten zen.

Zuzeneko emanaldiak "krisian" al daude? Musika kontsumitzeko era aldatu da?
Zuzeneko emanaldiak ez daude krisian, krisian dagoena "formatua" edo soportea da. Tegnologia, musika-industriaren aurretik doa eta gaur egun ia edozein talde entzutzeko ez dago cd-a erosi beharrik.

***Rock and roll-ak ez du dirurik ematen* ez da gaurkoa…**
Dirua eman? Jakingo bazenute!
Sasoi hartan *Hertzainak* taldekoek oso ondo asmatu zuten letra horrekin eta beste askorekin. Hala ere norbaitek irabaziko du, bestela, esaterako, ez zen ibiliko kontzertu batzuk babesten BBK...

Herri mailan orokorrean, musika mugimendua nola sumatzen duzue?
Oso ondo eta asko pozten digu horrek. Talde bikainak daude arrakasta haundia daukatenak: Kraussk, The Wet Band, Aiumeen Basoa, Naixan… Bestalde, gu, MRKren (Mutrikuko Rock taldeen kolektiboa) sorreran egon ginen eta hori orain dela asko izan arren, gaur egun jarraipena duela ikustea kristorena da! Hala ere, beti pentsatu izan dugu nesken talde gehiago egon beharko liratekeela. Ea ba! animatu neskak!

Uztailaren 17an, Markinako zelaian:
Brankan + Zea mays + Itziarren semeak

Uztailaren 23an, Mutrikun txoznetan:
Brankan + Norman

Brankan taldearen *Hondar ale bat* diska salgai Zubiaram, Bare-bare eta Ondarbeltzeko kantinan.

www.myspace.com/brnkn

GOTZON ARRANDEGIA
Ondo pasa Malen jaixak!
Gotzon Elzagirre
Felix Txurruka, 2 - Tfnoa:943 60 46 02 / 943 60 36 59

ERDIKO
Merzeria
Kinkilak, azpiko arropak, hariak, artilca...
Malen jai zoriontsuenak opa dizkizue
Erdiko kale 12 - Tel. 665 715 039

ZORION AGURRAK

SOTO eta PEDRO

Zorionak eta matxo haundi bana. Bazkai eder bat ein biharko deu ospatzeko. Guk bazkai ederra preparatuko deu, zuek baratzetik ekarri guri jenero ederra, noski, karakolak eta bariak jan aurretik, bestela...

MADDI

Zorionak etxeko printzesari abuztuaren 6an 4 urte handi egiten dituelako. Muxu handi bat etxeko denon partez eta bereziki Jokinen partez

ELAIA

Poxpolin mari sorgin alaiari zorionak! uztailaren 4an 6 kandela atzen zituelako. Txokolatezko muxuak denon partez.

DANEL

Poxpolin mari sorgin alaiari zorionak! uztailaren 4an 6 kandela atzen zituelako. Txokolatezko muxuak denon partez.

IDOIA eta JEXUS

Zorionak amatxo eta aitxona abuztuaren 9an urteak betetzen dezuelako. Matxo handi bat Nahia eta Aitorren partez. Muuuuak!

MIA

Abuztuaren 4an 10 urte haundi beteko dituen gure etxeko larrosatxoari, Zorionak!
Ondo pasa zure eguna.

IKER

Zorionak irailaren 2an bi urte egingo dituzulako. Maitasunez zure aiton-amonak eta osabak.

IRAIA

Zorionak uztailaren 21ean lau urte egingo dituzulako. Bihotz-bihotzez zure aiton-amonak eta osabak.

NAHIA eta AITOR

Zorionak gure etxeko errege-erreginari uztailaren 25ean 3 teinkara handi eta propiña jasoko dezuelako, Mutrikuko eta Ondarruko familixan partez.

MARKEL

Zorionak! Kopnturatu gabe 12 urte dagoeneko! Etxeko danon partez, Zorionak!

GARI eta URKO

Pila-pila zorion abuztuaren 19 eta 22an!

PELLO eta ANDREAS

Zorionak bikote asteleheneko partez.
Segi horrela gazte gazte mantentzen!!

MAITE

Zorionak bihotzez eta mila muxu maitasunez, etxeko denon partez.

AURORA, IBON eta ENEKO

Zorionak hirukote! Berandu baina seguru. Ondo pasa duzuelakoan mila kilo muxu familia guztiaren partez, batez ere Titaren partez.

Ondo pasa Malenak!!
Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

Argazki Zaharrak

Mutrikuko Orfeoia, 1954 urte aldera

Goitxik eta ezkerretik hasitxa: Jose Angel Arrieta "Bernabe", Jesus Azpiazu, Juan, Apitxin Yurrita, Jose Antonio Basurko, Andoni Beitia "Akitxiki",Txikitxo Alberdi, Jesus Beristain, Eli Arrieta "Bernabe", Victor Arizmendi, Jesus Mari Lekube, Paco Arrasate, Juan Mari Azkue "Potxero", Jose Mari Beristain, Jontxu Astigarraga, Jose Mari Zenekorta, Juanito Sustaeta, Joakin "Txiki" Larrañaga, Jesus Barrenetxea "Dondai", Arrate Andonegi, Zezilio Pagoaga, Izaskun Usobiaga, Mari Jose Alberdi, eta Arantza Agirregomezkorta.

1941eko Malenetan

Eusebia Beitia eta Rosario Ituarte

1949ko Malen egunian

Mila Arizmendi, Mari Mila Beitia eta Alberto Lasa "Txindatxin"

...uztaila...abuztua...iraila...

UDAKO EKITALDIAK

uztailak 17, zapatua
Akordeoi Alardea, Txurruka plazan, 23:00etan

uztailak 18, domeka
IV. waterpolo txapelketa, pistinan

uztailaren 21etik 25era
MALEN JAIXAK

uztailak 31, zapatua
BERTAN EGUNA
Mariachi Real Jalisco
Kalejira, herriko kaleetan, 20:00etan
Kontzertua, Txurruka plazan, 23:00etan

abuztuak 7, zapatua
Zine emanaldia, Zabiel plazan, 22:00etan

abuztuak 12, eguena
Donostiako Musika Hamabostaldiaren programan
URRUNDIK taldearen kontzertua
Kalbaixon autobusez (gonbidapena Turismo bulegoan)

abuztuak 21, zapatua
Golden Apple Quartet kontzertuan

irailak 10, barixakua
BERTSO JAIALDIA, Miruaitzen, 22:30etan

irailak 11, zapatua
TIRO PLATO, Kalbaixon, 12:00etan eta 15:00etan

irailaren 14tik 16ra
KALBAIXO JAIXAK

2010 urteko mendi irteerak

Mutriku, Ondarroa, Deba eta Lekeitioko mendi elkarteak

irailak 12
Mendiola-Kurutzeberri-Degurixa-Araotz
(Burumendi ME)

irailak 25-26, gaueko martxa
Einbar-Urko-Urkaregi-Arnoate-Mutriku

urriak 24
Candina mendilerroa (Aurrera MT)

azaroak 7
Gorbeia (Lumentza)

abenduak 12
Mutrikun zehar zeharkaldia (Burumendi ME)

ODOLA EMATEKO EGUNAK

...ABUZTUAK 13.....URRIAK 22.....ABENDUAK 17...
arratsaldeko 6etatik aurrera, lehengo anbulatorioan

ARRIZABALAGA
Okela eta janari prestatuak
Gora Malenak!
Pol. Ind. Mijoa, P 2 - 2
Tel./Fax: 943 603 065
E-mail: arrizabalenkeak@terra.es
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

HOTEL
KOFRADI
ZAHARRA
JATETXEA - RESTAURANTE
Onda pasa Malenak!
Telf. 943.60.39.54
Muelle, 1
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

AZKENETXE
ERRETEGIA
eguneko menua · koadrilentzako menuak · ospakizunak
abuztuarten 1etik aurrera zabalik
628195120 · 628194996
.....Kalbario gainean.....

Aliprox

DENDA BERRI

liderra den Talde baten babesarekin

Malen jai zoriontsuak
opa dizkizuegu bezero guztioi!

Vitoria Optika

AUDIOLOGIA ZENTROA

- Osasun sailak homologatutako audiologia zentroa
- Audioprotesista egunero dago zentroan
- Audiometriak doan, kabina intsonorizatuan
- Teknologia berrienak erabiltzen ditugu
- Etxean ere atenditzen dugu (Graduazioak eta Audiometriak)

Tel. 94 613 41 38
e-mail: mvitoria@cnoo.es

Iparkale, 1
ONDARROA



Malen jai zoriontsuak izan dilzagula!

MUTRIKUKO UDALA